



PROPOSAMENA-PROPUESTA

TRATU N

Promozio-Prebentzio-babesaPolitikak
Políticas de Promoción-Prevención-Protección

HAURTZOAREKIKO TRATU ONAREKIN
KONPROMETITUTAKO UDALERRIAK

MUNICIPIOS COMPROMETIDOS CON EL BUEN TRATO A LA INFANCIA



PROGRAMA INFANCIAEDUCO



EDUCO Fundazioa, (Educación y Cooperación, www.educo.org), mundu mailako garapenerako kooperazio Fundazio bat da eta duela 25 urte baino gehiagotik haurtzaroaren alde eta beraien eskubideen defentsan dihardu.

EDUCO-k hiru eskubideren gauzatzearen sustapenean fokalizatu du bere egitekoa.

- o Bizitzan zehar **kalitatezko, transformatzaile eta bidezkoa** izango den **hezkuntza** baterako eskubidea.
- o **Inguru seguru** eta babesleetan bizitzeko eskubidea
- o Haurtzaroaren eskubideak sustatzen dituen sistema publiko baten markoan, **hiritartasun aktiboa** gauzatzeko eskubidea.

2011. urtetik, Educoren **Ekintza Sozialeko Programak** (PAS), haur eta nerabe zaugarriekin eta beraien familiekin proiektuen bidez herri mailan lan egiten duten Espainiar estatuko 50 erakunde baino gehiago lagundu ditu (horien artean Hezi Zerb Elkarteak). Proiektu hauetako batzuk, Hezi Zerb Elkartek Gipuzkoako herri ezberdinetan garatu ditu (Andoain, Lasarte-Oria, Errenteria, Donostia, Hondarribia,...): BIRZIKLATU, MASMADERA eta TANTAZ TANTA OZEANO.

Hurrengo 5 urteetarako (2019-2024) EDUCOren Haurtzaroaren Programa berriak, duela urte batzuetatik PAS-aren markoan lanean aritu diren **7 entitate**¹-rekin kolaboratzean jartzen ditu bere indarrak. 7 hauetatik Euskadin kokatzen den entitatea Hezi Zerb da.

Hurrekiko Tratu Onaren eta Haurren Eskubideen Ikuspegian zentratutako 2019-2024 programa honek, oinarrian 5 aldaketa bilatzen ditu ingurunean:

1. Administrazio eta politika publiko eraginkorrak eta Haur eta nerabeen eskubideen aldeko apustu argi batekin.
2. Ikastetxe irekiak, berritzaileak, malguak eta inklusiboak.
3. Gurasotasun positiboa hobeto burutuko duten familiak.
4. Haur eta Nerabeentzat komunitate eta inguru sozial babesleak, atseginak eta egokiak.
5. Beraien eskubideak hobe ezagutu eta nola gauzatu jakingo duten, motibatuak egongo diren eta gaitasun gehiagoko Haur eta Nerabeak

Hezi Zerb-ek EDUCOren HAURTZARO PROGRAMA hau gauzatu du eta bere estrategiak proiektuan:

TRATU N

Haurtzaroarekiko tratu onaren aldeko herri mailako planak eta politiken garapenerako Proiektua

Proiektua, **Haurren Eskubideen 13. Ohar Orokorrean**² oinarritzen da:

¹El Arca Asociación (<https://elarcanaazaret.org/>) Hezi Zerb Elkarteak (<http://www.hezizerb.net/>) Fundación Canaria Farrah (<http://fundacionfarrah.org/>) Asociación Barró (<http://www.asociacionbarro.org.es/>) Fundación Salut Alta (<https://www.fundaciosalutalta.org/es/>) Asociación Entre Amigos de Sevilla (<http://asociacionentreamigos.com/>) Mar de Niebla (<http://mardeniebla.es/>)

²<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2012/8603.pdf>

Haurrak edozein formako biolentziarik ez jasotzeko eskubidea.

19. artikulua honakoa dio:

*"1. Parte diren estatuek, neurri legegile, administratibo, sozial eta hezitzaile egoki guztiak hartuko dituzte **haurrak edozein motatako kalte edo abusu fisiko edo mental, deskuidu edo tratu arduragabe, tratu txar edo esplotaziotik, abusu sexuala barne, babesteko** haurra gurasoen zaitzapean edo bere ordezkari legal edo bere kargu duen edozein pertsonarekin dagoen bitartean.*

2. Babeserako neurri hoiek, dagokion moduan, haurrari eta bera zaintzen dutenentzat laguntza emango duten programa sozialetarako prozedura eraginkorrak ezartzeko izan beharko lukete. Hala nola prebentziorako beste modu batzuetarako, identifikazioarako, jakinarazpenetarako, beste instituzioetara igortzeko, ikertzeko, lehen aipatutako hurrekiko tratu txarren kasuak behatu eta lantzeko, eta dagokionean eskuhartze judizialerako"

Proiektuaren ardatza, eskubide honen gauzatzea bermatzea da.

Esperientzia hau Gipuzkoako hiru udalerritan garatuko da. Hiru udalerrriak aukeratzeko erizpide batzuk jarraitu ditugu:

1. Bere ezaugarri soziodemografikoengatik zaugarritasun berezia duten Udalerrriak.
2. Agertutako interesa eta haurren babeserako eta prebentzioaren aldeko udalen alde aurretik egindako apustuak.
3. Udalerrri eta Elkaratearen arteko harremana.

PROPOSAMENAREN SINTESIA: PROZESU PARTEHARTZAILEA.HELBURUA HAURTZAROAREKIKO TRATU ONAREN ALDEKO UDAL PLANA

3 udalerritan epe ertain-luzerako helburu edo helmuga: **politika sozialetan haurren eskubideen ikuspuntuaren kultura bat barneratua edukitzea, HAURTZAROAREKIKO TRATU ONAREN ALDEKO UDAL PLAN** batetan irudikatu dadin.

Udal plan hau, modu partehartzaile baten bidez egingo da, udaleko korporazioaren ahobatezko konpromezutik, komunitateari protagonismoa emanez: Udal Lansailak, Ikastetxeak, Elkarate eta Kirol Elkarateak, Gurasoak eta bereziki HERRIKO HAUR ETA NERABEAK

Planetik irtengo diren ekintzak prozesu horretatik sortuko dira eta EDUCO-HEZI ZERBetik modu berezian lagunduko dute ikastetxe eta kirol inguruneetan hauen inplementazio eta sendotzean:

1.- HAURREN ONDOEZ egoerentzako detekzio eta arreta goiztiarrerako sistema bat (Emantik barne) ezarrita ez duten udalerritan.

2.- Ikastetxeetan Tratu Onerako eta Inguru Seguruetarako Estandarren Inplementazioa. EDUCOk ezarritako eta errekonozitutako estandarrak eta Keeping Children Safe³-en oinarritutakoak.

3.- EDOZEIN BIOLENTZIA EKIDITEKO- PREBENITZEKO ETA TRATU ONAREN SUSTAPENERAKO beste ekintzak.

EDUCO-HEZIZERBen EKARPENA 2 urteetan zehar gutxienez: urte 1 + urte 1 eta gehienez 3 urte (1+1+1), Planaren garapenean eta diseinuan lagundu eta gidatuko duten profesionalen lan-talde bat eskeintzea da. Lehenengo urtea testuinguruaren analisiarentzako (on line-off line, ingurune fisikoak eta birtualak) eta Planaren diseinu partehartzailea eta Udal Posizionamendua. Bi parteek (Udalak eta HeziZerbek) diseinuaren prozesuak bere inplementaziorako espektatibak bete dituela pentsatzen badute, beste urte batetan zehar lagunduko da, hirugarren batetara zabaldu ahalko delarik. .

UDAL KONPROMEZUA honako honetan oinarrituko da:

1.- Udal korporazioaren ahobatezko **HAURREKIKO TRATU ONAREKIN konprometitutako Udalerria** – ren deklarazio publikoa.

2.- Maila politiko eta teknikoan, **Udal Planaren analisi, diseinu, garapen eta ebaluazio** partehartzailean komisio edo komisioetan parte hartzea. Ingurune komunitarioarekin (ikastetxeak, elkarteak/klubak, gurasoak eta haurrak) elkarriketa saioak izango dira.

3.- Planaren baitan burutuko diren ekintzekiko **babes Instituzionala**

4.- Udal Plana martxan jarri eta lehenengo urtean (edo bi lehenengoetan) eraginkorren izan diren edo asebetetasun gehien lortu duten ekintzak finkatzeko, ahal den neurrian etorkizuneko **Udal aurrekontuetan partidak sartzearen** balorazioa epe ertain eta luzera.

³<https://www.educo.org/Blog/la-red-keeping-children-safe-avala-nuestro-trabajo-para-proteger-a-la-infancia>
<https://www.keepingchildrensafe.org.uk/sites/default/files/KCSTool2%20-%20Spanish.pdf>